



Arrasateko
PARKEAK
Parques de Arrasate



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

LAGUNTZAILEAK/ COLABORADORES:



GOI ESKOLA
POLITEKNIKOA
ESCUELA
POLITÉCNICA
SUPERIOR



AGURRA/SALUDO

Hamahiru parke dauzkagu gaur egun Arrasaten: batzuk historikoak dira, duela hainbat mendetatik bertan dirautenak eta garaikideak ere badira, XX. eta XXI. mendeetan sortutakoak. Guztiak daude herritarroi zabalik, paseo bat emateko, eseri eta isiltasunaz gozatzeko, jolasteko...

Parke hauetan gure herriari buruzko zenbait erreferentzia historiko, artistiko eta natural daude bizirik, eta eskuorri honetan daude jasota era laburrean. Parke bakoitzari buruzko xehetasun gehiago Udaleko web orrian bildu ditugu informazio sakonagoa jaso gura dutenentzako. Horretarako, esku-orrian, parke bakoitzaren deskribapenaren amaieran, karratutxo bat ikusiko duzue. Mugikorrean QR kodea irakurtzeko aplikazioa izanez gero, zuzenean web orriko informaziora joko duzue. Bestela, Udaleko web orritik sartzeko aukera ere baduzue.

Parke bakoitzean ere panel bana badago bertoko ezaugarri historiko, artistiko eta naturalen berri ematen duena.

Tenemos trece parques en Arrasate: algunos llevan siglos con nosotros, son históricos, otros se han construido durante los siglos XX y XXI. Todos están abiertos al público para dar un paseo, descansar y gozar del silencio, para jugar...

En estos parques aún perduran algunas referencias históricas, artísticas y naturales de nuestro pueblo y se recogen en de forma escrita en este folleto. Hemos recogido más detalles sobre cada parque en la página web del Ayuntamiento para aquellos que deseen más información. Para ésto, en el folleto, al final de la descripción de cada parque, veréis un cuadradito. Si se disponeís de la aplicación para leer los códigos QR en el móvil, enseguida estará toda esta información en vuestras manos. Sinó, también existe la opción de acceder desde la página web del Ayuntamiento.


También hay un panel en cada parque informando de sus características históricas, artísticas y naturales.

Arrasateko Udala



ALFONTSO X JAKINTSUAREN PLAZA

PLAZA DE ALFONSO X EL SABIO



Alfontso X jakintsuaren plaza "Grupo San Juan" izenez ezagutzen den auzunean dago. Hemen herriari horrenbeste onura ekarri dion Pedro Biteri Aranari Arrasatek eskainitako eskultura dago. Garai baten Sola familia esanguratsua jauregia ere bertan zegoen; 50. hamarkada hasieran jauregia bota behar izan zuten, gaur egun ezagutzen dugun auzunea sortu eta langileentzat etxebizitzak eraikitzeko.



Botanikoki balore handirik ez duen arren, bertan zuhaitz berezi ugari daude, Biteri jaunaren eskulturaren inguruan. Parke ederra, zalantzarik gabe, lasaitasunaz gozatu eta herriko historia garaikidean murgiltzeko.



La plaza Alfonso X El Sabio está situada en el barrio conocido como Grupo San Juan. En ella se encuentra la escultura que el pueblo de Arrasate ofreció en honor del benefactor Don Pedro Viteri Arana. En una época también albergó el palacio de una de las familias más significativas de entonces, los Sola. A principios de la década de los 50 derribaron el palacio para construir las viviendas para los trabajadores.

Aún siendo un parque sin mucho valor botánico, encontraremos muchos árboles singulares alrededor de la escultura del Sr. Viteri. Sin duda, un sitio hermoso, donde disfrutar de su tranquilidad y sumergirse en la historia contemporánea de Arrasate.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL



OLANDIXO / OLANDIXO

Olandixoko parkea herriko berdegune handienetako bat izateaz gain, 1970etik kooperatibismoari zuzen lotutako gunea da. Lurren zati bat publikoa den arren, beste zati handi bat jabe go pribatukoa da baina, hala ere, atea beti dago zabalik parkeaz gozatzeko. MONDRAGON taldeko hainbat kooperatiben egoitzak daude bertan, baita eskultura batzuk ere. Paseoan ibiltzeko inguru aproposa, Mururako bidea ere bertatik pasatzen baita. Bere belardi zabaletan disfrutatzeko, deskantsatzeko, eskalatzeko edo bere maldetan elurraz gozatzeko leku paregabea. Parke honen beste berezitasun bat da natura eta teknologiaren arteko harremana eta bertan diren eskulturak.

El parque de Olandixó además de ser una de las zonas verdes más extensas del pueblo, está estrechamente relacionado con el cooperativismo desde 1970. Aunque gran parte de las tierras son de propiedad pública, otras muchas son privadas. Esto no supone ningún problema, ya que siempre nos encontraremos con las puertas abiertas para disfrutar del parque. Aquí encontraremos varias sedes de empresas del grupo MONDRAGÓN y numerosas esculturas. Es un lugar idóneo para pasear ya que también pasa por ahí el camino hacia Muru. Extraordinario para descansar y disfrutar en sus enormes praderas o gozar con sus nevadas pendientes en invierno. Las esculturas nos dejarán boquiabiertos en este lugar donde se mezclan la naturaleza y la tecnología.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL



MONTEIRON/MONTERRÓN



Monterrongo parke eta jauregia elkarrri loturik egon dira XVII.mendeaz gozotik. Monterrongo kondesari 1983.urtean erosi zitzaizkion gaur egun herritarrenak diren eraikina eta parkea.




Jauregi barroko honek bisitari bitxi ugari jaso ditu XVII mendearen erdialdean eraiki zutenetik. Alboan sekulako balioa duen parkea izateak ere asko lagundu izan dio beti; izan ere, besteak beste, 150 urtetik gorako hainbat zuhaitz exotiko daude bertan, baita Gipuzkoako zuhaitz bitxi izendatutako sekuoia erraldoia ere. Parkean murgildu ahala, giro eta paisaia ezberdinak ageri dira; landare exotikodun parke zaindian hasi, baso autoktono naturalizatua igaro eta San Kristobal ermitako belardietaraino.



El parque y el palacio de Monterrón están estrechamente relacionados desde el siglo XVII. En el año 1983 se le compraron el edificio y el parque a la condesa, siendo estos hoy en día de uso público.



Este palacio barroco ha recibido numerosas visitas de personas célebres desde que se construyó a mediados del siglo XVII. El estar junto a un parque de valor incalculable también lo ha propiciado, ya que encontraremos varios árboles exóticos de más de 150 años, además de la secuoya gigante nombrada árbol singular de Guipúzcoa. A medida que nos adentramos en el parque encontraremos diferentes ambientes y paisajes; empezando por un cuidado parque de plantas exóticas, pasando por un bosque autóctono naturalizado y finalizando en los prados junto a la ermita de San Cristóbal.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL





SANTA BARBARA/SANTA BÁRBARA



Santa Barbara parkea Arrasateko alde zaharraren mendebaldeko muinotxoan dago. Tontorrean ikusgai daude oraindik, Biteriren arabera, Nafar Erresumakoa zen gaztelu zahar baten aztarnak. Horren zentroan zedro erraldoi bat dago. Inguruan Arrasateko kondairan ageri den herensugea dago herria zaintzen. Ondoan jarriz gero, Arrasateko alde zaharretik hasi eta Zigarrolarainoko bista aparte gozatzeko aukera bikaina dago. Are gehiago, parkean zehar mugitu ahala, herria oso-osorik ikusi daiteke. Historia handiko parkea da Santa Barbara. Bistez, naturaz, lasaitasunaz eta historiaz gozatzeko parke paregabea.

Santa Barbara está en la colina situada al oeste del casco histórico. En la cima están todavía visibles los restos de un antiguo castillo que según Viteri pertenecía al reino de Navarra. En el centro veremos un gran cedro. También está cerca el dragón que se cita en la leyenda del pueblo. Si nos colocamos al lado suyo, podremos disfrutar de las increíbles vistas que se nos ofrecen, empezando por el casco antiguo hasta Zigarrola. Mientras nos movemos por el parque tendremos la oportunidad de disfrutar de diferentes vistas ya que desde aquí se puede apreciar casi todo el pueblo. Santa Barbara es un parque con mucha historia. Un lugar perfecto para disfrutar de las vistas, de la naturaleza, tranquilidad e historia de nuestro pueblo.

INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL



ZALDIBAR/ZALDIBAR

Arrasateko historia ulertu ahal izateko, premiazkoa da Zaldibarren berri izatea. Hainbat ika-mika eta borroka sortu dira Zaldibarko lurrengatik eta lur horien ondorioz. Herriko zein bailarako leinuen arteko borroka ugari gertatu ziren hemen; bai Arrasateko erreketak aurretik, baita ondoren ere.

Bertatik igarotzen da Biteri etorbidea eta bertan dago Biteri jaunak herritarrentzako eraikitako frontoia.

Balio botaniko handirik ez duen arren, sekulako balio historiko eta soziala du Zaldibar parkeak. Leku ezin hobea da umekin ziburuetan jolasteko, esku pilotan edo futboleant aritzeko, lagunekin egoteko edo asteburuetakoko futbol partidez gozatzeko.

Zaldibar tiene un peso importante a la hora de comprender la historia de Arrasate. Han sido diversas las riñas y luchas generadas en torno a estas tierras. También han sido testigos de las luchas entre bandos del pueblo y del valle antes y después de la quema que asoló a este pueblo.

Por ahí transcurre la avenida de Viteri y ahí encontraremos el frontón que construyó el filántropo para los ciudadanos.


Aún no teniendo gran valor botánico, este parque tiene un gran valor histórico y social. Un lugar perfecto para jugar con los más pequeños en los columpios, practicar la pelota o el fútbol, para disfrutar con los amigos, y gozar con los partidos de futbito los fines de semana.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL



ETXEZARRETA/ETXEZARETA



Deba ibaiaren bazterreko parke eta baserriaren lehen erreferentziak 1773koak diren arren, XIX.mendekoak dira istorio interesgarrienak. Bertako jabe Rafael Ariza Etxezarretaren zaletasun handienetariko bat botanika zen zalantza barik; honenbestez, Arrasateko lorategi botaniko ederrenetako bat eta ibai ertzeko baso natural bakanetako bat mantentzen ditu, nahiz eta hauek jabetza pribatukoak diren. Irakurketa eta jakintza ere oso gustuko zituen eta horren erakusle da bertan zeukan liburutegi erraldoia. Pio Baroja eta Gregorio Marañon idazleak askotan izan ziren Etxezarretan. Urte asko pasa dira baserria erre eta erori zenetik, baina oraindik sekulako xarma du parkeak. Historiaz, naturaz eta garaiako misterioez gozatzeko leku paregabea, jabeen baimena lortuz gero, beti ere.

Aunque las primeras referencias del parque y caserío ubicados en la orilla del río Deba son del año 1773, las historias más interesantes surgen en el siglo XIX. No deja lugar a duda alguna de que el dueño, Rafael Ariza Etxezarreta, tenía gran afición a la botánica; debido a ello mantuvo uno de los jardines botánicos más bonitos de Arrasate y uno de los pocos bosques naturales de ribera, siendo estos de propiedad privada. Otras aficiones eran la lectura y la sabiduría. Muestra de ello era la gigantesca biblioteca que poseía y las numerosas visitas que recibía de grandes escritores como Gregorio Marañón y Pio Baroja.

Son ya muchos los años desde que el caserío se quemó, pero aún la zona mantiene su especial encanto. Es un lugar idóneo para gozar de la historia, la naturaleza y de los misterios de antaño siempre que se consiga el permiso de los dueños.


INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL





PARKEAK HERRIAN KOKATZEN

- 1 **MONTERRON PARKEA**/*PARQUE MONTEERRÓN*
- 2 **ETXEZARRETA**/*ETXEZARRETA*
- 3 **SANTA BARBARA**/*SANTA BÁRBARA*
- 4 **ZALDIBAR**/*ZALDIBAR*
- 5 **ALFONTSO X JAKINTSUAREN PLAZA**
PLAZA DE ALFONSO X EL SABIO
- 6 **OLANDIXO**/*OLANDIXO*
- 7 **GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA**
POLO DE INNOVACIÓN GARAIA



/SITUANDO LOS PARQUES EN EL PUEBLO

ARRUENA/ARRUENA

8

ALDAI/ALDAI

9

BITERI PLAZA/PLAZA BITERI

10

ZALDUSPEKO PLAZA

PLAZA DE ZALDUSPE

11

GERNIKA PASEALEKUA

PASEO GERNIKA

12

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

13



ARRUENA/ARRUENA



Arruena parkea Arrasateko Musakola auzoan dago, lehenago Arruena edo Kaskonategi baserria zegoen lekuan. Hura, zoritxarrez, gaur egungo parkea eta ondoan dagoen supermerkatua egiteko eraitsi behar izan zuten.

Oso izaera berezia duen parkea da Arruena; besteak beste, zirkua muntatzeko, Mundumiran kanpaleku gisa, larrialdietan heliportu bezala edo 2015ean hogeita bost urte bete dituen Errozioko Ama Birjinaren jai andaluziarra ospatzeko erabiltzen da.

Berdegune eder hau aproposa da lasaitasunaz gozatu edo paseatzeko. Parkean Musakolako auzotarren harrotasun eta nortasuna islatzen dituen astoaren eskultura dago.



El parque Arruena está situado en el barrio Musakola, en el mismo sitio donde se encontraba el caserío con el mismo nombre. Éste, por desgracia, tuvo que ser demolido para construir el parque y el supermercado que está al lado.

Es un parque con personalidad propia; entre los diferentes usos que se le dan está el circo, el lugar de acampada para Mundumira, helipuerto en caso de emergencia o para celebrar la fiesta andaluza de la virgen del Rocío que en 2015 festejó su 25 aniversario en este lugar.

Esta zona verde es apropiada para disfrutar de la tranquilidad o pasear. También encontraremos la escultura que refleja la identidad y el orgullo de los vecinos de Musakola.



INFORMAZIO
GHEZARRA
INFORMACION
ADICIONAL



GERNIKA PASEALEKUA/PASEO GERNIKA

Gernika pasealekuak Arrasate alderik alde zeharkatzen du San Prudentzio eta Gesalibar auzoa lotu eta herriko hainbat parke gurutzatuz. San Prudentzion, gainera, bidegorriak jarraituz, Bergara edo Oñatiraino joateko aukera izango dugu. Eskaintza paregabea oinez, korrika edo bizikletaz kirola eginez herriko parkeak ezagutzeko eta naturaz zein lasaitasunaz gozatzeko.

El paseo Gernika zumardia cruza Arrasate de lado a lado uniendo San prudencio y el barrio Gesalibar y cruzando varios parques del pueblo. En San Prudencio además, si seguimos el camino, tendremos ocasión de ir hasta Bergara u Oñati. Una excelente oportunidad para conocer los parques de Arrasate o hacer deporte mientras andamos, corremos o montamos en bicicleta.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACION
ADICIONAL



GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

POLO DE INNOVACIÓN GARAI

Garaia berrikuntza gunearen ideia 2000. urtean sortu zen, eta ideia horrek 2007an eman zituen lehen fruituak. Espazio hau baserri, ortu, soro eta larrez josita egotetik, punta-puntako teknologia eta enpresen gune berde bilakatu da, jasangarritasun irizpide zorrotzak eta ikerkuntza eta garapenean (I+G) egindako inbertsioei esker. MCCk, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak elkarlanean sortutako espazio honetan Unibertsitateak, teknologia zentroek eta enpresako I+G unitateek bat egiten dute. 450.000 m²-ko natura gune honetan ibilaldiez eta inguruko paisaia ederrez gozatzeko aukera paregabea izango dugu.

La primera semilla del polo de innovación Garaia surgió en el año 2000 y dio sus primeros frutos en el 2007. De estar integrado por caseríos, huertas, prados y fincas pasó a estar compuesto por tecnologías y empresas punteras gracias a los estrictos criterios de sostenibilidad y la gran inversión hecha en Investigación y desarrollo (I+D). En este espacio creado gracias a la cooperación de MCC, Gobierno Vasco, Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Arrasate, encontraremos universidades, centros tecnológicos y unidades de I+D de diferentes empresas. En este espacio natural de 450.000m² podremos disfrutar de paseos y de los maravillosos paisajes que se nos ofrecen.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL





ALDAI/ALDAI



Aldai parkea 1812an Frantsesen aginduz eraikitako hilerri zaharraren gainean dago eraikita. Hilerri hau 1994 arte egon zen funtzionamenduan eta 2009an egindako lan batzuen ondorioa da gaur egun ezagutzen dugun parke zoragarria. Leku paregabea da umeekin jolasteko, parkeko lasaitasunaz gozatzeko, eguzkia hartzeko edo paseatzeko. Izaera berezia ematen dio inguruari 700 m² eta sei erpindun karpa erraldoiak, curitatik zein eguzkitatik babesteko. Azken 200 urteetan gune berezi, sentikor eta sentibera izan da Aldai. Gaur egun alaitasunez eta kolorez beteta, modu zibilean, maite ditugun pertsonen azken agurra emateko leku ere bada.



El parque Aldai se construyó sobre el viejo cementerio que ordenaron erigir los franceses en 1812 y funcionó hasta 1994. Éste precioso parque es el resultado de varias obras que se efectuaron durante el año 2009. Es un lugar ideal para jugar con los pequeños, disfrutar de la tranquilidad del parque, tomar el sol o pasear. La carpa gigante de 700m² y seis vértices al tiempo que le da personalidad al parque, nos protegiera tanto del sol como de la lluvia. Durante los últimos 200 años Aldai ha sido un lugar especial y sensible. Hoy en día, muy colorido, se ha convertido en lugar idóneo para dar el último adiós a las personas que más queremos.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL



BITERI PLAZA/PLAZA VITERI

Biteri plaza Arrasateko bi maisuri, Pedro Biteriri eta Esteban Garibairi, eskainitako bi etorbideren eta Maalako Errebalaren arteko lautadan dago. Urte askotan gune honek hainbat aldaketa jasan ditu hirigintza mailan. Bertako pergolaren zutabeek zuhaitzak irudikatzen dituzte, bere osotasunean baso bat imitatu guran. Bertan dauden metalezko loreontzi erraldoietako landaketek, garbi asko erakusten dute gune honetako lorezaintzak duen joera modernoa.

Plaza hau leku aproposa da herriko erdialdean bertan egun eguzkitsuetan goxo-goxo egoteko, umeekin parkean jolasteko edo bertako pergola azpian noizbehinka eskaintzen diren kultura ekitaldiez gozatzeko.

La plaza Viteri está en la explanada situada entre el arrabal de Maala y las avenidas dedicadas a dos grandes personajes de Arrasate, Pedro de Viteri y Esteban de Garibai. Es una zona que durante años ha sufrido varios cambios urbanísticos. Las columnas que encontraremos en la pérgola representan árboles, queriendo imitar un bosque entre todas ellas. Las plantaciones hechas en las grandes jardineras metálicas, descubren la existente tendencia hacia la jardinería moderna.

Es un lugar ideal para disfrutar de los días soleados, jugar con los pequeños y disfrutar de la oferta cultural que a veces se ofrece bajo la pérgola.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL



ZALDUSPEKO PLAZA

PLAZA DE ZALDUSPE

Plaza hau, izenak dioen bezala, Zalduspe inguruan dago; garai bateko tren geltokiaren parean. Antzina solo eta larreak izan zirenak fabrikaz bete ziren 1960 eta 1970.eko hamarkadetan. Orain, berriz, fabrika zaharrak bota eta etxebizitzak eta berdeguneak eraikitzeko apustua egin da inguru horretan, askoz ere leku atseginagoa bihurtzeko. Parke berria izanik, ez ditugu sekulako zuhaitzak, baina urte batzuk barru parke zoragarria izango da, zalantzarik gabe. Gazte ugari batzen da plaza honetan, bizikleta, patin, patinete eta bestelakoetan katilu edo “bowl”ean trebeziak erakusteko.

Leku aproposa da, zalantzarik gabe, egun eguzkitsu batean lasai egon eta gazteen gorpilen gaineko jauzi eta itzulipurdiez gozatzeko.

Esta plaza, tal y como lo dice el nombre, está en las inmediaciones de Zalduspe; en frente de la antigua parada de trenes. Lo que antaño estaba repleto de prados y campos de cultivo enseguida se llenó de fábricas en las décadas de los años 1960 y 1970. Ahora en cambio, se ha optado por derribar las viejas fábricas y construir viviendas y zonas verdes convirtiendo la zona mucho más agradable. Teniendo en cuenta que es un parque nuevo, no hay grandes árboles; aunque con el tiempo, sin duda, será un parque maravilloso. En esta plaza suelen juntarse muchos jóvenes con sus bicis, patines y patinetes para mostrar sus habilidades en el tazón o “bowl”. Es un lugar idóneo para disfrutar de un día soleado gozando de la tranquilidad y disfrutar de los saltos y piruetas de los jóvenes.



INFORMAZIO
GEHIGARRIA
INFORMACIÓN
ADICIONAL





GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR



Mondragon Goi Eskola Politeknikoa gaur egungo Arrasate eraikitzeke ezinbesteko erreminta izan da, zalantza barik. Urte luzez Arrasatear gazteei formakuntza teknologiko eta industrial emateaz gain, herriaren eta bailararen urbanizazio, industrializazio eta garapenean sekulako papera izan du; bertatik sortu baitziren, On Jose Maria Arizmendiarietaren laguntzaz, lehen kooperatiba eta kooperatibistak.



Ez da kasualitatea Arizmendiarietak Eskolako parkeari emandako garrantzia, berogailua jarri aurretik geratzen zitzaien diru apurra horretan inbertitzea erabaki baitzuen herriaren gozamenerako. Izan ere, apur hori berogailua jartzen gastatu izan balu ez litzateke bertan sekula berdegunerik izango. Parke ederra da Eskola Politeknikokoa, zuhaitz ezberdin eta berezi ugari aurkituko ditugu lasaitasuna laztandu daitekeen parke botaniko txiki honetan.



La Escuela Politécnica Superior de Mondragón ha sido un instrumento imprescindible para construir el Arrasate que hoy día conocemos. Además de dar formación tecnológica e industrial a los jóvenes, ha tenido un papel muy importante en la urbanización, industrialización y desarrollo del pueblo y del valle; ya que surgieron de aquí, con ayuda de Don Jose Maria Arizmendiarieta, las primeras cooperativas y cooperativistas.



No es casualidad la importancia que Arizmendiarieta le dio al parque, ya que prefirió gastar el poco dinero que tenía en ello para el disfrute de la población, en vez de utilizarlo para el sistema de calefacción. Es un parque precioso el de la escuela politécnica, veremos muchos árboles especiales y singulares en este lugar donde se puede palpar la tranquilidad.



PARKEEN MANTENUA

MANTENIMIENTO DE LOS PARQUES

Arrasaten mantenua behar izaten duten berdeguneek 360.000m² okupatzen dituzte. Hauetan burutzen diren lan nagusiak belar mozketak, ureztatzeak, izkinak txukuntzea, belar txarrak kentzea, birlandaketak, zuhaitz eta zuhaixken inausketak, hutsuneak betetzea eta loredun landareen landaketak.

Mantenu lan hauek esfortzu handia suposatzen dute, bai maila pertsonalean eta baita maila ekonomikoan ere. 2014an 627.241,52€ko kostu ekonomikoa izan zuen mantenuak, pertsonal kostuei dagokienez 14 langilekoa izan zelarik.

Herriko berdeguneen mantenurako 2 enpresa ezberdin subkontratatu ditu udalak.

2005etik aurrera Arrasateko lorategien diseinu zein mantentze lanei dagokienez irizpide ekologiko eta jasangarriak erabiltzen ditira. Burutzen diren lanen artean uraren kontsumoa gutxitzea eta hobetzea, hondakin begetalen gestioa, inausketen gestioa, urteko loredun guneen murrizketa, zuhaitzen gestioa, ongarritze kimikoen desagerpena, botiken erabileran murrizketak... aurkituko ditugu.

Arrasate cuenta con unos 360.000 m² de zonas verdes urbanas en los que se realizan labores de mantenimiento. En dicha superficie se realizan labores de corte de césped, riego, recorte de bordes, escardas, recebados, poda de árboles y setos, reposición de marras, y colocación de flor.

Estas labores de mantenimiento de zonas verdes suponen un gran esfuerzo tanto en medios económicos como en medios humanos. En el año 2014 el costo económico fue de 627.241,52 € y los medios personales empleados fueron de 14 personas.

El servicio de mantenimiento de zonas verdes urbanas en Arrasate esta subcontratado a 2 empresas diferentes.

A partir del año 2005 se utilizan criterios ecológicos y sostenibles tanto en lo que respecta al diseño de espacios verdes como a la ejecución y al mantenimiento de los mismos. Entre las actuaciones que se llevan a cabo: reducir y optimizar el consumo de agua y energía, gestión de residuos vegetales, gestión de podas, eliminación de zonas de flor anual, gestión arbolado, eliminación abonados químicos, limitar el uso de productos fitosanitarios...





ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN